

Egile eskubideak defendatzeko presio taldea sortuko dute

Agentziak. Frankfurt.

Idazle kataluniar eta alemaniarrek egile eskubideak Europan defendatzeko presio talde bat sortuko dute. Hala adostu zuten atzo, Frankfurteko (Alemania) Liburu Azokan, katalanez eta alemanez jarduten duten idazleen elkarteek.

Europa osoko idazleen elkarteek osatutako eztabaidagune batetik aterako litzateke presio taldea. Egile eskubideen alde egitea eta idazleek jasaten duten eskubide urraketa mugatzea izango da haren helburua. Imre Torok Alemaniako Idazleen Elkarteko presidentea esan zuenez, nazioartean presioa egiteak konponbideak aurkitzen lagun gaitzake.

Hain zuzen ere, gai horren inguruan mintzatu ziren Imre Torok eta Guillem-Jordi Graells Katalanezko Idazleen Elkarteko presidentea, azokako programa ofizialaren barruan. Euren herrietan egile eskubideek duten egoerak deskribatu zituzten. Alemanian idazleek egile eskubideak aitortuak eta babestuak dituztela esan zuen Torokek, baina, bere ustez, badago zer hobetu.

Graellsek Espainian dituzten arazoak azpimarratu zituen: Idazleek jasaten dituzten egile eskubideekiko erasoak areagotzen ari dira, murriztu ordez. Hori dela eta, egileen elkartearen arteko harremanak indartu egin behar ditugu. Argitaratzaileak ere kontra dituztela esan zuen Graellsek. Halaber, euren eskubideak babesik gabe daudela adierazi zuen, eta hori argudiatzeko, borrokarako auziak aipatu zituen: kopia pribatuaren gaineko akordioa (egile eskubideak kontuan hartu ez dituenak) eta liburutegiko maileguen truke prezio sinbolikoa ordaintzeko neurria.